

148. FITXA Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak

Nori zuzendua: EAEko entitate publikoak (udalak, tokiko organismo autonomoak, tokiko enpresa-entitate publikoak eta titulartasun publikoko Merkataritza sozietateak); EAEn kokatutako entitate publiko edo pribatuak (kuadrillak eta mankomunitateak, garapen agentziak, landa-garapeneko elkarteak, partzuergoak, entitate publiko eta pribatuek osatutako merkataritza-sozietateak, beste entitate eta elkarte batzuk).

Sarbide-esteka: [Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak - 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2025eko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituen](#)

Eremuak: Turismoa

Zenbatekoa: 1.805.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/23

Laburpena

Deialdi honen xedea da **EAEko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten lurralde-proiektu turistiko**ei laguntzea, turismo-fluxu berriak dinamizatzeko, banatzeko eta sortzeko 2025eko ekitaldirako, baldin eta proiektu-mota hauetan sartzen badira, betiere:

- Euskal Autonomia Erkidegoko helmugen erakargarritasuna eta esperientzia turistikoa hobetzen duten **lurralde-proiektu turistikoak**.
- **Helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak**.

Onuradun izan ahal izango dira entitate publiko eta pribatu hauek:

- EAEko hiriburuen turismo-sustapenaren arduradun diren **EAEko entitate publikoak** (udalak, tokiko organismo autonomoak, tokiko enpresa-entitate publikoak eta titulartasun publikoko merkataritza sozietateak), baita eskualdeko turismo-lankidetzako enteetako kide ez diren udalerrietakoak ere, baldin eta ente horiek ez badira existitzen edo ez badira eratu beren esparru geografikoan, eta baldin eta toki-entitate horiek Itourbask-Euskadiko Turismo Bulegoen Sareko turismo-bulegoen eta/edo informazio-puntu turistikoen titularrak badira eta urte guztian irekita badaude.

- **EAEEn kokatutako entitate publiko edo pribatuak** (kuadrillak eta mankomunitateak, garapen agentziak, landa-garapeneko elkarteak, partzuergoak, entitate publiko eta pribatuek osatutako merkataritza-sozietateak, beste entitate eta elkarte batzuk), baldin eta bertako eskualde-eremuan edo eskualdez gaindi garatzen badituzte jarduerak, turismo-lankidetzako ente gisa edo turismo produktuak kudeatzen dituzten ente gisa.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagungarriak dira proiektu tipologia hauek garatzeko 2025eko ekitaldian hasten eta amaitzen diren jarduketak:

- a) EAEko helmugen erakargarritasuna eta esperientzia turistikoa hobetzen duten **lurralde-proiektu turistikoak**; II. eranskinean zehazten dira haien ezaugarriak, eskakizunak eta baldintzak.
- b) **Helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak**; III. eranskinean zehazten dira haien ezaugarriak, eskakizunak eta baldintzak.